

Katalana hiltzeaz?

Beti bestelakorik entzuten eta esaten gabiltzala, horra non agertu zaigun Manifestu sonatu bat katalanaren hilzoriko kanpaiak jotzen. Manifestu etorri handikotzat eman dute aitaturiko artikulua kritiko eta irakurleak: «Una nació sense Estat, un poble sense llengua?» da idazlan famatua (*Els Marges*, 15. zenb., 1979). Joaquim Molas, Jordi Castellanos eta beste lau irakasle katedradunek izenpetzen dute.

Idazlan horrek oihartzun zabala izan du egunkari eta aldizkarietan, lehenen orrialdeetan deiak emanez eta gaiari orrialde osoak eskainiz. *Presència*-k, e.b., zazpi orrialde trinkotan eman du «dosier» bat, azalean, hizki nabarmenetan, «El català es mor» (katalana hiltzen ari da) zioela.

Hizkuntzaren hil-biziko galdera plazaratu du, arriskuak gaindituzat ematen diren uanean. Gaurreguneko itxaropenaldi itzali baten isladura dela ere pentsa liteke. Lau partetan emana dago lana. Auto-reen ustez, diktatura ondoko demokraziak ez dio oraindik katalanari irtenbide jatorrik ekarri. Lehenengo partean bere tesi nagusiaren atarikoak ematen du; bigarrenean espainolgintzaren oinarriko eragileak jasotzen ditu; hirugarrenean, egoera horren aurrean dauden erantzun-moldeak aztertzen ditu, eta, laugarrenean hizkuntz egoerak etorkizunerako dituen galdera ardatzak biltzen ditu laburki.

Sarrerek konstatazio bat aurkezten du: «hizkuntza eta kultura katalanak inoiz baino heriotz arrisku haundiagotan daude gaurregun, eta gertaera honek explikabide eta analisisa eskatzen ditu», garai batetan uste izango ez zen frankismo-ondoko fenomeno baitezake hori. Bigarren parteak ematen ditu gertaera horren giltzarriak; hauek dira, hain zuzen: «a) instituzio propioen ezabatzea (1939-1977); b) andanan etorri diren langile-inmigrazioek aldatu egin dute egitura demografikoa; c) 1939-45eko gerratearen ondoren, mundu kapitalistan bizi eta kultur sistema orohar moldebakartu egin da». Hiru faktore horiek dira Kataluniari hizkuntz politikarako planteamolde berriak lekarkioketenak.

Hirugarren partea da lanaren mamin-mamina. Honela ematen du arazoa: «Hiru faktore horien indarrez, hogeiren bat urteren buruan orduko elebakartasun-egoera diglosiko hartatik elebitasun diglosiko batetara pasa da Katalunia, eta bigarren hau elebitasun trukatzaila (*bilingüisme substitutiu*) batetara doa pausoz pauso». Katalana tribu-hizkera bilakatzen ari da, kultur-momiatzen («*culturització*» *momificadora*). Diktatur garaiaren denek pentsatzen zuten, orduko zapalkuntza zela ororen explikabidea; gaurregun aitzaki hark galdu du indarra, eta aldaketa-uste hauetakoari begiratu behar zaio. Nornahik ikus dezakeenez, gobernu zentral espainolari bost axola zaio katalanaren erabateko normalizazioaren arazoa: eskolako barne mugatu

batera bildu nahi da hizkuntza nazional katalana, ordualdi hertsietan hesituaz.

Baina ez da hori okerrenea: «Kataluniaren ordezkaritza daramaten indar politikoetarik gehienak aipagabeki katalanaren hondamendi geldí baina sistematiko horretan partaide dira, eta jokabide hau (...) nahiko berria dugu gure artean». Hizkuntzaren arazoa, gizarte industrial honetan ez zaie pragmatikoa gertatzen: zerbait jatorrik lortzeko mass-media-k eskuratu beharko lirateke, eta, egia esan, komunikabide horiek lortuko dituzten politikariek erosoagoa dute, beren helburuetarako, gaztelania, katalana baino. Bestalde, badago arrazoin teoriko-ideologiko bat ere politikarien jokabide hori argitzeko: lehenago abertzaletasun etniko bat zuen Kataluniak, baina, inmigrazioaren obraz, gizarte-homogeneotasuna galdu egin du Printzerriak. Orain, katalanismo klasikoaren argudioa («ama-hizkuntzaren defentsa»), boomerang bat bilakatu zaio hizkuntza nazionalari. Politikari katalanek atzera egiten dute, katalanari gaztelaniarekiko berdinaliozkotasuna eman behar zaionean.

Irakurleak pentsa dezakeenez, hain laburki eman dudan artikulu honek zoño askotatik iratzarri ditu erresuminak. Maria Manent-ek adibidez, ez du uste inola ere katalana frankismoan baino okerrago dagoenik; batez ere, idazle honek politikarien ekintzaren jatorrasuna eta premia defendatzen ditu, eta, alderdi abertzaleen aringarritzat, Kataluniako indar politikoen arteko erlaziokidetasuna gogoratzen du. Ez dago benetan egoera politikoaren nagusi den alderdi abertzalerik. Manent-ek politikarien eta intelektualen arteko ohizko etsaigoa azpimarratzen du, eta batez ere Manifestuak daukan pesimismoa —eta nahi bada, fatalismoa— salatzen. Kataluniak bere norabide berriak bilatzen dituen une honetan, «testigutza desbideratzailea» da honelako Manifestu bat, dio M. Manent-ek. Arazoaz interesatuak oso kontrako eritzitan banatu dira. ■ *Joseba Intxausti.*

Baietz urtea gaizki bukatu!

Ez dugu behintzat alai-alai hasi 1980 hau:

- Irun, Erretereria, Galdakao, Lujua eta abarretako biolazioak.
- Miñoien buruaren hilketa Gasteizen.
- Yon-Kolako jabearen hilketa.
- Arroyo Gonzalez goardiazibilaren hilketa Altsasun.
- Moya Jimenez goardiazibilaren hilketa Elorrrion.
- J. M. Palacios-en hilketa Getxon.
- Carlos Saldiseren hilketa Lezon.
- Arrasateko eta Markinako tiroketak.
- Stadium-eko nagusiaren hilketa.
- Bonbaz lau hilak eta hamaika zaurituak Alonsotegin.